

# Nafarkaria

• ostirala • 2000ko irailaren 29a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Baztan** • Mendi magalen arteko Infernuko Errota eraberritua  
**Blanca Armendariz** • «CBN-n garai berri bat zabaldu nahi dugu»



## Herri irratiek bat

Heldu den astelehenetik aurrera programazio berria zabalduko dute Aralar, Beleixe eta Esan Erran irratiek, eta berrikuntza guztien artean bat izanen dute hirurek nabarmen eta garrantzitsuena: Sarea. Hiru irratia elkarrekin emititzen hasiko dira, egunero bi orduz, denei dagozkien gaiak elkarrekin eta errazago lantzeko, eta elkarlana bultzatzeko, lana hobeki bete nahian.

# Baztan ●

## Infernuko errota

Etxebertzeko jatetxeari esker ia erorita zegoen errota konpondu dute

Zenbait jabeen gogoari esker honelako gero eta errota gehiago berreskuratzen ari dira. Honelako eraikuntza guztien artean bereziena ziurrenik *infernuko errota* da etxolaren azpitik *infernuko erreka* pasatzen baita.



Horrelakoa izan da Infernuko Errota antzinetik; orain eraberritu eta bisitari askoren helmuga da. ● ZALDUA

**E**Z DAGO ARGI NOIZ ERAIKI zen Infernuko Errota, bertakoek betidanik ezagutu dute toki berean eta euren aitexi amatxiei aunitzetan entzun diete errotako kontuetaz solasten. Toki berezi eta zoragarria da Infernuko Erreka, mendi magalen artean egiten du bidea Baztan eta Etxalar erdibituz. Lekarozko herriak Orabidea auzoan duen zatian kokatzen da eta arestian inguruetan zenbait familiek betetzen zituzten 40 baserri inguru zeuden. Herri garrantzitsuenetatik gutxienez lau ordotara oinez edo zaldiz zeuden gehienak hau dela eta baratzeetatik lortzen zutena eta abeltzaintzak ematen ziena zeukaten jafeko. Mende hasieran baserri aunitzek zeukaten arto eta gari landak eta hauek ehotezko ezinbestekoa zen errota bat. Infernuko errekek

egiten duen bidean ur jauzi eder bat dago eta hau erabilita Infernuko Errota eraiki zuten erreka gainean, mendi magalen artean erdi zintzilik. Errota hartara Baztango herrietako baserriar aunitz hurbiltzen zen artoa ehotezera, batzuk egun osoa ematen zuten bidean. Artoa astoen gainean zeramatela. Errota hau

izan zen Baztanen gerrate zibilean gelditu ez zuten bakarra, litekeena da ejerzitoek Infernuko Errota han zegoela bururatu ez izatea.

Denboraren poderioz baserriak hustutzen joan ziren eta Infernuko Errota itxi zuten. Orain dela hiru urte salmentara atera zuten baina etxolaren egoera tamalgarria zen or-

durako. Errotatik hurbil dagoen Etxebertzeko bordan betidanik izan dute jatetxea eta bertara hurbiltzen ziren bisitari gehienak errota zoragarri hau ikusteko ibilbidea egiten zuten. Hau dela eta Etxebertzeko jabea den Joxe Mari Argaratek Infernuko Errota erosi eta moldatzeari ekin zion. Xapaloneko baserriko Agustin Mendiburu bederatzi hilabetez egon zen errota konpontzen. Orotara lau milioi pezeta gastatu ditu lanetan Joxe Mari Argaratek eta Infernuko Errotak duen interes kulturalarengatik Bianako Printzea kutura sailetik laguntza ekonomikoa jaso du. Aurtengo udan egunero hurbildu dira bisitariak Infernuko Errotara, batez ere, Katalunia aldekoak baina baita Nafarroa eta Euskal Autonomi Elkartekoak ere. Infernuko Errotara iritsi nahi dena NA 4435 errepeidea

hartu behar du 121 nazionalen duen sarreratik. 17 kilometroan Etxebertzeko Bordako bidea hartu behar da. Jatetxera iristerakoan Infernuko erreka bazterrean dugula 25 minututako seinaleztatutako ibilbidea egin behar da Infernuko Errota topatu arte.

→ Rakes Goñi

## Igantzi

### Astelehena bitarte iraunen dute San Migel bestek

Atzo hasi eta astelehena bitarte iraunen dute Igantzin San Migel bestek. Gaur egun handia da, eta meza nagusia izanen da. Ondotik, herriko dantzarien emanaldia izanen da, herriko soka-dantza dantzatuko dute. Arratsaldeko 18:00etan beste emanaldi bat eskainiko dute dantzariak. Arratsalde eta iluntzean dantzaldia izanen da Izotz taldearekin, eta musikakoak izanen dira tartean.

Bihar, larunbata, Ziobi mendian gosaria egingen dute. Plater tiraketa ere izanen da, eta goizean haurrentzat kankailu eta buruhandiak aterako dira. Egurdian, betizuen txanda izanen da, eta arratsaldean herri kirolen emanaldia. Iluntzean, berriz, bertso-saioa, Mañukorta, Maia, Xabier Legarreta eta Amets Arzallusekin. Arratsean, Musu Truk taldea ariko da.

Igandean, haurren eguna izanen da. Jokoak eta puzgarriak izanen dituzte, eta pilota txapelketako finalak jokatuko dira egurdian. Buruhandiak, berrendua eta eskualdeko pilotarien partidak ere izanen dira. Arratsean, dantzaldia izanen da, Kristina eta Amaiarekin.

Astelehenean bukatuko dira bestak, betizu eta herri bazkariarekin; Egaña eta Lizaso bertsotan ariko dira ondoren, eta Larra-kaitz txarangak alaituko du giroa. Besta akabera Egan taldeak paratuko du.

→ Jon Abril

## zubian barna

BINGEN AMADOZ



**O**porren garaia atzean geraturik, aisia denboran eginikoaren kontakizunetan dabilta sarturik gure ingurukoak. Sanoa eh... baina a ze inbidia!!!! Bidaia turistikoak egin dituzte batzuek, herriz herri ibili dira besteak festa-giroan, betiko bere herrian eman dute besteak oporraldia. Bada hondartzan, eguzkipean egon dena, bada baita ezertxo ere egin ez duena, ezer apartekorik ez gutxienez. Erritmoa aldatu agian... besterik ez. Badirudi ongizateko gizarte honetan denek opor zoragarriak dituztela maila on horretan oporrak ere sartzen direla-

## Oporrak

ko, baina errealtatea bestelakoa da. Izan behar du nahitanahiez. Dirurik ez dagoela aitortzea ez zaie denei erraz egiten. Beraz, atxakiak aipatzen dira. Batzuek diote herrian primeran egoten direla, lasai-lasai... itzalean irakurtzen, loaldi eder luzeetan, igerilekuan eguzkia hartzen eta horrelako zeregin merketan. Aspertzen direnik ez dute agian esanzen, amaginarrebaren errietak agoantzen dituztenik ere ez, kanpora joateko aski dirurik ez dutela ba... igoal ezta, baina... nik ez dakit... Hiritik alde egiteko gogorik ez omen dute batzuek. Aski dute lanera ez joateare-

kin... Lagunak eta ahaideak bisitatzea joaten da ere bai, baina sumatzen dut ez direla beti bisita horiek bihotz-bihotzetik egiten diren horietakoak.

Udazkenean sartuta gaudelarik, ez dut uste oporrak amaitu berriak diren honetan, ni izanen naizela opor gozagarri batzuekin amesten duen bakarra. Jakina, batek baino gehiagok bizioa dudala esanen dit. Bost axola. Bizioa izanen da, baina ahal dudan bezain laster, hau da diru apur bat biltzen dudan bezain pronto opor majo batzuk egingen ditut...

Iruñea •

# Arrotxapearen Eguna, merezi dutelako

Ekainean jairik gabe geratu ondoren, bihar egun berezia izanen dute

**Ekainean auzoko jaiak ospatzeko Iruñeko Udalak oztopoak jarri ondoren, bertan behera utzi behar izan zituen Arrotxapeko Jai Batzordeak. Bizilagunek bat egin zuten eskakizunetan, eta orain ospakizun berezia prestatu dute.**



Ekainean jaiak bertan behera utzi behar izan zituzten Udalak jarritako oztopoak zirela eta. Bihar, erebanta hartuko dute. • IÑAKI VERGARA

Iruñeko Udalak hamaika traba jarri ondoren, aukuratutako lekuan txosnak paratzeko baimena ukatu ondoren eta zezensuzkoa prestatzea debekatu ondoren, Arrotxapeko Jai Batzordeak bertan behera utzi behar izan zituen jaiak iragan ekainean. Orain, Udalararen baimen guztiak lortu dituzte eta jai berezia prestatu dute biharko.

Arrotxapeko Jai Batzordearen esanetan, bertako bizilagunek bat egin zuten ekainean batzordearen erabakiekin, eta prestatu zituzten mobilizazioetan parte hartu zuten. Horregatik, bizilagunek jaiak merezi dituztela diote.

Hala, ekainean debekaturiko jaiak orain eginen dituzte Arrotxapean; egun bakar

batez, hala ere. Iruñeko Udalak baimena eman die orain txosnak eskatutako lekuan jartzeko eta baita zezensuzkoa egiteko ere, eta egun bakar batean ekainerako prestatuturiko ekintza gehienak eginen dituzte.

Haurrentzako txokolatadarekin hasiko dute biharko jaiak, goizeko 10:30ean. 11:00etan haur jolasak eta

puzgarriak izanen dira Maiteminduen parkean, eta orubete beranduago Jota Jaialdia eta bermuta izanen da txosnen ondoan. Eguerdian eskulangileen erakusketa eta herri kirolak izanen dira Maiteminduen parkean eta Urzainki plazan.

Bazkaria eginen dute Runa parkean, eta ondoren txarangak atera eta herri poteoa izanen da. 17:00etatik aurrera pilota partiduak jokatuko dituzte, eta 18:00etan erraldoiak eta jaldunak aterako dira. Ondoren, maiordomoen aurkezpena eta dantza izanen da.

Arratsaldean, gazteentzako olinpiar jokoak prestatu ditu Jai Batzordeak, eta gazteentzat ere dantzaldia izanen da 20:00etan jaien esparruan. Ondoren, 22:00etan, zezensuzkoa aterako da, eta ordu erdi beranduago herri afaria izanen da Errotaberri elkartearen. Dantzaldia eta txosnetako musikarekin amaituko dute bizilagunek jaiak, eta ekainean gertatutakoa ordainetan hartuko dute egunbeteko jaiak.

→ Miren Iriarte



**herri aldizkariak**  
Edurne Elizondo

## Ikastetxeak berriz ere beteta

Ikastetxera itzultzeko garaia iritsi da ikasle askorentzat. **Ttipi-ttapa** aldizkariak gai hori jorratu du bere azken zenbakian. Aitor Arozena kazetariak sinatzen duen artikulua araberak, 4.354 ikasle itzuli dira eskualdeko ikastetxetara: «Berriki 4.354 ikasle hasiera eman diote 2000-2001 ikasturteari eskualdeko ikastetxeetan, joan den urtean baino baino berrehun bat guttiago. Nabaria da zenbat eta ikaslearen adina tikiagoa izan, orduan eta gehiago direla euskara hutsez ari direnak. Adibidez, aurtun, 3 urterekin klasean hasi diren

haur gehienek euskaraz ikasiko dute. Orain arte Iparraldeko eskoletan frantsesez ikasten zuten gehien bat, baina Ana Mari Curutchet, Sarako eskola publikoko erakasleak adierazi digunez, 'ama eskolan —3 eta 6 urte artekoak— ari diren guztiak elebidunean ari dira'. Erdara hutsean ari diren gehienak, aldiz, DBHko azken zikloetan edo Batxilergoan ari dira, Hegoaldeko institutu eta Iparraldeko lizeoetan».

«Eskualdean, aurtengoan berrikuntza, ikastetxerako bidea autobusez egiten duten Haur, Lehen Hezkuntza eta

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako neska-mutikoez izanen dute, laguntzailea izanen baitute autobusean. Hori Bera, Doneztebe, Leitza eta Elizondoko ikastetxeetan nabaritu da gehienbat. Kasu batzuetan autobus enpresak berak jarri du laguntzailea eta bertze batzuetan Guraso Elkarteak, beti ere Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Honela, gurasoen betiko kezka nolabait baretuko da, orain arte haur tikiak ez baitzuten eskolarako bidean autobus gidariaren zaindaritza bertzerik».

## Ezkilen hotsak ulertzen zituen

Izeba Enkarna zenak, nik ez bezala, ezkilen hotsak ulertzen zituen. Esan nahi dut Egutegi Katolikoan edo Egutegi Santuan edo Denadelakoan oso jantzita zegoela. Bazekiela noiz eta zer ziren «maitinak», esate baterako, eta zeintzuk barau egunak eta zegozkien doinuak eta abar. Hementxe bizi izandu zen bere bizitza osoan: Iruñeko Jarauta kalean, S. Lorentzoko Parrokiaren ondo-ondoan. Hemen aipatu behar dut parrokiaren horri zion zaletasuna ia-ia futbollekoa zela. S. Lorentzokoa zen, bai, baina ez dakizue ze puntutarraino! Sutsuki! Bufanda eta bonboa besterik ez zitzaizkion falta. Berarentzat, S. Lorentzoko Parrokiakoa izatea bizitzaren erdia zen, eta beste erdiaz paso eginez (beste erdirik izatekotan) neska zahar zendu zen. Eguneroko behin edo bitan entzuten zuen meza, eta egin behar ziren adorazio eta gantxillo guztiak (aste santurako) egiten zituen. Ez zuen holakorik egiten, baina, egia esan, ez zait batere kostatzen parrokiatik ateratzen irudikatzea Sadarretik garaileak ateratzen diren legez: Meeeeeza Ooona!!! (ospatzeko). Eta, egia esan, San Lorentzoko Parrokiak txiripa hutsez egokitu zitzaion! Zeren ondoko atarikoiei Deskalzosen egokitzen zaie, nahiz eta Jarautan bertan eta pare-parean izan. Pentsa ze poza izango zuen Izeba Enkarnak jakinda mugan sortua zela, bai, baina mugaren alde onean! Parrokiaren muga hau, hau ere esan behar da, ikusezina da kale honetatik pasatzen diren gehienentzat, ezkila-hotsen zentzua harrapaezina zaigun bezalaxe. Esan dezakegu, beraz, Izeba Enkarna ni bizi naizen toki berberetan bizita, beste leku batean, arras diferentean, bizi izan zela, leku ikusezin baina emankorren. Izeba Enkarna zahartzetakoan erotu zen, eta eroetxera bizitzera eramane zuten. Gero Arrotxapeko egoitza horretan eman zituen urteak, zendu zen arte. Han, noski, S. Lorentzoko ezkilen doinua entzuterik ez zuen, eta ez dakusagun bere mundu horretatik ezeroso emango zituela egunak argi eta garbi agertzen zait orain, goizeko seiatan edo, S. Lorentzoko ezkilen hotsak entzunda iratzartzen naizenean. Izeba Enkarnak, beraz, eroetxetik, behin, ihes egin zuenean, eta munipek etxera deitu zutenean, segituan eman genien egon zitekeen leku bakar horren berri. Eta holaxe, San Lorentzoko elizara joan eta bertan aurkitu zuten, belauniko. Guk ikusten ez dugun mundu horretan arimarraino eta azken aldi batez bada ere, murgildurik. ●



urdai  
aren  
mintzoa

Xabier Larraburu

# Herri irratiak, elkarrekin

Aralar, Belexe eta Esan Erran irratiak batera emituko dute astelehenetik aurrera

**Sarea izena eman diote Aralar, Belexe eta Esan Erran irratiak kideek astelehenean abian jarriko duten programazio modu berriari. Elkarrengandik oso hurbil daude hirurak, eta, lan txukunagoa egiteko, gai komunak batera jorratu dituzte goizero-goizero astelehenetik aurrera.**

Nafarroako herri eta bailara askotan, inguru askotan, herri irratiak garrantzi handia dute bertako bizitzaren dinamizazioan. Gainontzeko hedabideetan jasotzen ez den programazioa ematen dute, herrian herrikoa eta bertatik bertara landua. Irrati askok, gainera, euskara hutsean aritzen dira, hizkuntzaren ikasketa eta erabilera sustatzeko lanari berebiziko laguntza emanez.

Baina txikiak izaki, herri irratiak ez dute gehienetan behar bezalako indarririk, eta, diru laguntza gutxiarekin, programazio mugatua eta langile gutxi izaten dute gehien-gehienetan.

Orain, Jauntsarasko *Esan Erran*, Lekunberriko *Aralar* eta Etxarri-Aranazko *Belexe* irratiak kideek, euren arteko hurbiltasunaz jabetuta, gai komun guztiak jorratu eta irrati indarra emateko *Sarea* osatu dute.

Heldu den astelehenean hasiko dira *Sarearen* bidez emititzen, eta entzuleek hiru irratiak hartzen dituzten eremuen berri izan ahal izanen dute aurrerantzean. Irrati sare berriak Ultzama eta Basaburua, Lekunberri, Larraun, Araitz eta Betelu, eta Sakana informazioaren berri emanen du aurrerantzean hiru irrati elkarlanari esker.

Txari Eleta *Esan Erran* irratiak esatariak esan duenez, hiru irratiak elkarrengandik oso hurbil dauden eremuetan egiten dute lan; hartara, gai, gertakari eta berri anitz dituzte aman-

Txikiak izaki, herri irratiak ez dute gehienetan behar bezalako indarririk. Programazio osatu eta landuagoa eskaini nahi izan dute hiru irratiak langileek, eta lanaren banaketa oso egokia izan da horretarako

komunean. «Askotan pertsona bera-rengana jotzen ohi genuen gai berari buruz mintzatzeko, eta gai komun horiek guztiak hobeki joratzeko *Sarea* osatzea erabaki genuen». Hala, astelehenetik aurrera goizeko 10:30etik eguerdiko 12:30era euren seinaleak elkartu eta bat egiten dute uhinetan *Esan Erran*, *Aralar* eta *Belexe* irratiak.

Programazio osatu eta landuagoa eskaini nahi izan dute hiru irratiak langileek, eta lanaren banaketa oso egokia izan da horretarako. «Aurrerantzean, adibidez, kirolak hobekien lantzen dituenak *Sareak* hartzen duen inguru osorako egiten ditu kirolak, edo psikologo batekin harremana duenak harreman hori guztientzat landuko du», dio Txari Eletak.

Hala, goizetan, bi orduz, mikrofonoak txandakatuko dituzte hiru irratiak esatariak, lan txukun eta osatua goa erraztasun handiagoz egiteko.

Hala ere, dena ez da *Sarea* izan. 10:00etatik 10:30ak bitartean irrati bakoitzak bere aurkezpena egiten du, eta 12:30etik aurrera irrati bakoitzak ohiko bere programazioarekin jarraituko du. «Oso ongi dago *Sarea* bultzatzea, baina beste bi ordu lehen bezala egingo dira, irratiak sortu zenekoa mantenduz, herrian herrikoa galdu gabe», esan du Aralar irratiak langile Martin Juanenak.

→ Miren Iriarte



● MIKEL SAIZ

## Irrati helduena, Aralar

Martin Juanena Lekunberriko Aralar irratiak langile bakarrak herrian herrikoa ere mantendu behar dela argi utzi zuen Sareari buruz mintzatzean. Sarearekin ordu bete luzatuko dute programazioa, 10:00etan hasiko baitira, eta 12:30etik aurrera orain artekoarekin jarraituko dute, bertako informazioarekin. Horrela, informazioa zabalduko dute «herrian herrikoa galdu gabe».

Hiru irratiaren artean arituena da Aralar irratiak, orain dela bederatzigar urte sortua, 1991ko maiatzean, hain zuzen. «Euskara teknikaria euskara inguru honetan nola astindu pentsatzen ari zen, eta irrati baten beharra ikusi zuen, euskari

asko lagunduko ziolako; asmo horrekin sortu zen irratiak», esan du Martinek.

Lekunberriko, Larraungo, Araizko eta Beteluko bertako informazioa landu du orain arte Aralar irratiak, «baina horren eremu txikia izanik, hiru edo lau ordu betetzeko bazuetan behar izaten da kanpora joatea ere», esan du. Orain, Belexe eta Esan Erran irratiakoen laguntzaz joanen dira kanpora. Aralar irratiak inguruko biztanleen %70ek entzuten dute, egindako inkestek esan dutenez; orain ingurukoek eta urrutiago daudenek ere entzun ahal izanen dute bertako esatariak emanen dituen berriak.

## Esan Erran, Sarearen erdigune

Jauntsaratsen dago *Esan Erran* irratiak, Basaburuan, eta astelehenetik aurrera *Sarearen* erdigune izanen da, bertan emanen baitiote, orduerdi, irrati bati edo besteari paso. Txari Eleta bertako esatariak esan duenez, Ametzua kultur elkartearen ekimenez hasi zen *Esan Erran* emititzen, 1998ko abenduaren 20an, eta orduetik oso harrera ona izan du. Orain, Sarearekin, emisio ordu gehiago izanen ditu. Eletak esan duenez, *Sarea* aurrera eramateko arazo bakarra «teknikoa» izan dute *Esan Erran* irratiak. «Antenarekin leku batetik bestera ibili ginen, Aralar eta Belexe irratiaren seinaleak hartu ahal izateko».

Txari Eletaren esanetan, euskara eta herritarren partehartzea bultzatzea izan du helburu beti irratiak, eta horretarako, arratsalde libre utzi izan dute, «nahi duenak pro-

iegin dezan». Hala ere, orain arte oso jende gutxi heldu dio Eletak. «Jendeak irratiaren hitz egiteari beldurra eta ez da etortzen». Dena den, irratiak bi urtetan oso era ona izan duela dio Eletak; «hemen euskaraz ulertzen duen baina hitz egiten ez duen jende asko dago, eta entzako oso egokia da euskarazko irratiak; horiek *Esan* entzuten dute, baita euskara ikasle askok ere». Bermin Gartxitorena eta Txari Eleta irratiak langileek tenez, haiek uste baimo jende gehiagok entzuten dutia; «kritikatu behar denean, behintzat, kritika dezentziaz jasozen ditugu», dio Eletak. Aurrerantzean herri eta haran gehiagotik jasoko dituzte Eleta eta Gartxitorenak jaso beharreko kritika eta laudorioak.



● MIKEL SAIZ

## Belexe irratiak, berriena

*Sarea* osatuko duten hiru irratiaren artean Sakanakoa da berriena, Belexe irratiak. 1999ko maiatzean hasi zen emititzen, Etxarri-Aranaz duen estudioan, maiatzaren 3an. Orduetik hona Alfredo Alvaro eta Aitziber Etxaiz ari dira bertan esatari lanetan.

Alfredo Alvaro esatariak esan duenez, Bierrik elkarteak bultzatuta jarri zuten abian irratiak, eta martxan izan den bi urte eta erdi hauetan oso harrera ona izan du. Goizero-goizero hiru orduko programazioa prestatu izan dute Alfredo eta Aitziberrek, 11:00etatik 14:00etara, baina orain, Sarean lanean hastearekin batera, ordu bete luzatuko dute eguneroko programazioa.

*Esan Erran* irratiaren bezala, Belexeko langile eta arduradunek ere herriko lagun guztiak zabaldu nahi izan dizkiote mikrofonoak, eta arratsalde parte osoa libre utzi dute nahi duten taldeek programa egin dezaten.

Alvaroren esanetan, irrati honek herrian izan duen harrera egin dituzten programetan ere ikusi izan da; «Pasa den kurtsuan zazpi irratiak izan ziren arratsalde; aurretik, oraindik prestatzen ari gara, eta jadanik bostek eman dute izena».

Arratsaldeko programazioa hasi gabe, eta izena emateko epea amaitu gabe, Belexen emisio orduak luzatu dituzte jada Sareari esker.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

# Joxe Lekarotzen mendurrenean

**Aurten, hilabete honetan berean, ehun urte bete dira kazetari ahaztu hau jaio zela, berriz ere ez dakit zertan ari garen pentsatzen Nafarroako euskaltzaleok oraino inolako ospakizunik ez eta aipamenik egiteke.**



**E**ta ez da lehenbiziko aldia horrelakorik gertatzen zai-gula. Honela bagoaz majo, negar lanturu etsaiak eginiko kalteengatik, baina geure mixeria guztiak agerian, etsai berarendako ezin trufagarriago. Joxe Lekarotz Goñik ez du sarrerarik Nafarroako Aurrezki Kutxak duela hamar bat urte karrikaratutako *Gran Enciclopedia de Navarra* hartan, espero daitekeen bezala, bestalde, alta, EGUNKARIAK berak orain dela bost bat urte banatu Harluxeten *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa* haren dagokion faszikuluak ere ez dakar Lekarotzen sarrerarik, neure aztoragarriako bederik ere! Bai badakartela Estornestarran Auñamendikoen haien *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco* ez horren berrian, ausaz, Lekarotz bera argitaletxe honen saltzaile ibili zelako bizitzaren azken urteetan beharrak eraginda. Alabaina, eta arrazoiak arrazoi, bazekarten, zaharragoa izanik ere. Nork bederak atera ditzala kontuak gero!

Joxe Lekarotz Goñi Lesakan jaio zen, 1900eko irailaren 4an. Gazte zeneko berririk ez dugu, jakin badakigu, ordea, gazterik gazte hasia zela kazetagitza jeltzalean enantzoko langile, idazlari ez eze baita zuzendari-tza lanetan ere finki. Ardura gaitzeko lehenbiziko lana Iruñeko *La Voz de Navarra* egunero jeltzalean bete zuen 1925etik 1927ra. Nafarroako EAJren egunkari hori 1923ko martxoaren 11n atera zen estreinakoz, eta 1936ko uztailaren 19ra arte iraun zuen. Hamahiru urte luzeko tarte labur hartan bederatziz izan ziren egunkariak: Angel Sainz Calderon, Eladio Espartza Aginaga, gure Joxe Lekarotz, Jesus Etaio Zaldueño, Jesus Arantzadi Irujo, Alberto Lorenzo Lamas, Migel Espartza, Migel Reta Bidegain eta Joxe Agerre Santesteban. Lekarotzen aitziz-

netik argitalpenaren lema gobernatu zuen Eladio Espartza ere lesakarra genuen, 1888ko otsailaren 18an jaioa. Apezgaitegian hamar bat urte xahutu ostean, sorterriko idazkaritza bere egin zuen. Hona-koxea izan bide zen arrazoia *La Voz de Navarra* largatzeko eta, nahi gabe bada ere, zuzendari lana bere herrikidearen eskutan uzteko.

Espartza ez zen, gainera, Lekarotz bezalako karneteko jeltzale garbia. *La Voz*-en baino hagitzez lehenago *Diario de Navarra*-ko kolaboratzaile-ia izan zen, eta Lesakako idazkaritzaren ardura jada eragozpena izan gabe, 1929az geroztik egunkari horren erredakzio buru egin zuten. Garcilaso-rekin batera, zorio-neko *Diario*-tik betiere, altxamendu faxistarako giroa sortzen ahale-gindu zen, eta horregatik ere, ezin gaitzake harritu 1937an berean Francok Arabako gobernadore zibil izendatu izana. Guztiarekin ere, muineko euskalduna izan genuen Espartza, eta 1941ean, Intza aitaren partez euskaltzain oso izateko eskaera egin ziotenean ez zion muzin egin ohoreari. Bestalde, eta liburu aunitzen egilea izanagatik ere, euskaraz idazlan bakarra izkiriatu zigun, egun galdurik bide dagoena; *Parpina* izenburuko antzezlan, hain zuzen ere.

Joxe Lekarotz oraino 22 urte zituela sartu zen kazetari *La Voz*-eko erredakzioan. Egunkaria agertu zen urte bereko abenduan, Primo de Riveraren diktadura hasi berria zenean hain zuzen, egunkaria ixteko saioa egon zen eta zuzendariak, erredakzio buruak zein bost erredaktoreek, Espartza, Etaio, Reta, Tellez, Basail, Zierbide

eta Lekarotz zarpikoteak, espetxean eman zituzten eguberriak. Lekarotzen zuzendaritza aldia ongixko abiatu zen; alabaina, tailerretako langileekin izaniko tirabirengatik dimititu behar izan zuen 1927ko abuztuan, egunkariak 12 egunetan karrikara gabe egin ostean.

Egun mikatza huraxe Lekarotzendako, dudamudarik gabe, halarik ere, hura ez zen nahikoa izan gure kazetaria etsitzeko, eta Donostiara aldatuz, jeltzaleek hantxe zuten *El Día* egunkariko erredakzioan sartu zitzaigun berriz ere kazetari soila harik eta Jabier Landabururen ondotik 1931n egunkari horren zuzendari egin zuten arte.



Lanpostu hartan sendo iraun zuen, baita irau-nen ere 36ko gerrarengatik izan ez balitz, bada, Iruñean *La Voz*-ekin gertatu antzera, Donostiako *El Día* gatazka hasi orduko itxi baitzen. Bilbora joakiz, *Euzkadi* egunkariko zuzendari tekniko jardun zuen orduan, eta gudu-aldi bete-betean ere, Euzko Jaurlaritzako Kultura kontseilari izendatu zuten 1938ko azaroaren 11n. Gerratea amaiturik, Gurseko eremuan izan zen; behin atxiloturik alemanen eskutan jarri baita hauek frankistei eman ere. Hala edo nola militarki epaituta, heriotza zigorra lehenbizi eta bizi arteko katearekin kondenatu zuten. bete egin ez zuen zigorra, 1958an aske utzi baitzuten kale gorrian, kazetaritza lanik ez egiteko debeku larriarekin eskuan. Ordudanik, sortu berria zen Auñamendi argitaletxe-ko etxe-ko saltzailea izan zen, Donostian 1964ko azaroaren 2an zendu zen arte. Egun Lesakan dugu ehortzirik, gure omenaldiaren zain.

Patziku Perurena



## Erremediorik gabeko osasun epidemia

**S**ENA SANO: Edo-zein gauzatan ere bai, baina, bereziki senari dagokionean, zergatik ez da gaitza bezain kutsakorra osasuna? Zergatik ez da izandu sekulan osasun epidemiarik? Errepara zaitezte egungo merkatu guzian: *ekologismoa, denbora librimoa, feminismoa, larreturismoa, bordaberrismoa, alardismoa, lizarrismoa, nudismoa, intsumismoa, demokratismoa, euskalerrismoa, dalomismoa* edo beste *zernahismo*, onbide osasungarriak omen ditugu denak. Zergatik sortzen eta ugaltzen dira, ordea, beti epidemia moduan? Galde egiten dui, besterik ez.

**BEHATOKIAK:** Ez ditut batera gogoko *edertasun naturistiko* horiek, azken batean, ez baitute gure jakitearen perspektibak ematen dien zentzu zuria besterik erakusten. Bat behar eta, eman dezagun Aralarko San Miel inguruaz ari naizela. Irurtzun aldetik begiraturik, ezereza ematen du, baldin eta gure jakitearen atsegín logikoak ez badio bitarteko espantu zuririk eransten. Inguruko muino eta malda guziek askoz ere ugariagoak, biziagoak eta adierazkorragoak iruditzen zaizkit, baina *ez horren altuak* dio neure jakite lojiko ergel honek. Zeinen gauza ederra den, moteilek, neure ikusmenak tarteka neure jakite guzia atseginez uka dezakela ohar-tzea.

**ITURRIAN BAKAR:** Lagunik gabeko, obligatorik gabeko eta grinarik gabeko bakardade honek, berez sortzen duen asperraren, nazkaren eta etsiaren ondotik, neure baitako eta naturako sakondurarik barrenenetan murgiltzen naiz, oharkabean bezala, indar berri bila edo. Horregatik uste dut, naturagandik

erabat urruntzen dena, bere baitatik ere urrutiratu egiten dela, eta inoiz ez duela edaterik izaten bere baitako iturri-rik sakonenari darion ur bizi freskotik.

**ANIMALI MODERNOAK:** Turistak animaliak askara bezala ibiltzen dira. Inork ez baitie eman bidea ikus dezaketenean beste ikuspegi ederren berririk. Gaurgero ordea, animaliak baino okerragoak dira: gidari erakustun batekin egiten baitute turismoa. Orain abere heziak bezala ikusten dituzte bazterrak. Eta ez naiz ari herrira kanpotik datozen turista horietaz, herrian bertan beti turista arrotz izanen diren *animalia moderno* haue-taz baizik.

**GUDARI ZAHARREI:** Ahul eta negarti bihurtzen den herriari erremedio modura zizta dakiok gerra, nola edo hala bizirik atera nahi horretan; baina ojo, izaten dira erremedio azkar askiak herriei bizia lasterrago kentzeko ere. Bai, eternidade guzian bizi nahi izateak, edo ez hil nahi izateak, sentiera zaharkitu ahul baten aztarna erakusten du. Nik uste, jendea zenbat eta lasago eta harroago bizi, orduan eta prestuago izaten dela sentimendu atsegín bategatik bizia arriskatzeko. Baina hala bizi den eta sentitzen duen herriak, gaurgero, ez luke gerra beharrik.

**INTZENTZIO ATZENDUAZ:** Bidean goazela, maizexko atzentzen dugu helburua zein genuen. Modu berebean aukeratzen dugu eta hasten gara ofizio batean, helburu jakin baten lortzeko bitarteko-tzat hartuz; baina, gero bitartekoaz atzendurik, berez helburu bagenu bezala segitzen diogu ofizioari. Hasierako intentzioen atzentzea da, bai, maizenik egiten dugun hutsegiterik ergelena.

## Ziria

• Motxorrosolo •

### Borondate onekoa

**E**GIN BERRI DEN BANAKETAN, ESPERO ZUEN ZATIA EGOKI-tu zaio. Barne mugen jakitun, borondate ona agertu du. Taifen gisan aritu denak pleguak ditu bereganatu. Hai-ze kontra dabilenean errazago baita norberaren gabeziak ezkutetzea,

# Blanca Armendariz


CBNKO PRESIDENTEA

## «Etapa berri bat hasi nahi dugu»



● MIKEL SAIZ

CBN Nafarroa Saskibaloitza Taldeak hilaren 16an jokatu zuen aurtengo denboraldiko lehen partida, Ohorezko Mailako Ligan. Emakumezkoen taldea da, eta, aurreko urteotan krisi latza bizi ondoren, zulotik ateratzen saiatzen ari da. Joan den azaroan zuzendaritza berria aukeratu zuen taldeak, eta Blanca Armendariz izendatu zuen presidente. Taldea indarberritzeko erronka bere egin du Armendarizek.



### soslaia

Blanca Armendarizen kirola saskibaloia izan da beti. Txikitan saskibaloia jokalaria izan zen, eta, ondoren, emakumezkoen taldeetan aritu zen entrenatzaile. Semeak ere jokatzen du saskibaloian.

Futbolaren nagusitasuna ez du batere atsegin Blanca Armendarizek, eta saskibaloia aldarrikatu du futbolaren negozioaren aurrean. Telebistan ordaindu gabe saskibaloia partidak ikustea «ezinezkoa» dela salatzen du.

Joan den azaroan izendatu zuten Blanca Armendariz CBNko presidente. Taldearen gorabeherak gertutik ezagutu ditu, eta orain taldea aurrera ateratzeko prest da.

tzen ni taldera, eta ilusioa berreskuratzen hasi direla uste dut. Talde lehiakor eta orekatua lortu dugu, eta aurrera egingen dugula ziur naiz. Talde sendoa dugu.

#### ■ Erabat berritu duzue taldea.

Bai, lau zapabost jokalarik besterik ez dira gelditzen aurreko denboralditik. Ligan maila altua dago, eta goian egoteko talde sendoa behar genuen. Badakigu, hala ere, Liga gogorra izanen dela, baina argi dugu bide bakarra gora egitea dela.

#### ■ Taldea profesionalizatzea da zuen helburua?

Bai, hala da, besteek ere bide hori hartu baitute, eta gu ezin gara atzean gelditu. Gure asmoa da hemendik hiruzpatalau urtera harrobiko jokalaririk taldean sartzen hastea, bertako jokalariekin aritzea. Jokalari batzuk badira, baina gehiago behar ditugu.

#### ■ CBNren garairik txarrean Juan Uztarroz entrenatzailea ezagun bihurtu zen, gose greba egin baitzuen CBNrentzat laguntza eskatzeko.

Taldearen arima izan da Juan Uztarroz, eta lan asko egin du CBNren alde. Bere lana eta bere dirua jarri du taldea aurrera ateratzeko. Ni asmo berarekin sartu naiz taldean, eta aurtengoa gure urtea izanen dela ziur naiz, behingoz aurrera egin edo betiko amore eman erabakitzeko unea iritsi baita. Argi dago nire apustua zein den.

→ Eudurne Elizondo

**B**LANCA ARMENDARIZEK argi dauka CBN taldeak ez duela merezi pairatu duen krisi sakona. Emakumezkoen taldea izateagatik beste hainbat taldek baino arazo gehiagori aurre egin behar dio CBNk, presidentearen iritziz, eta bera horren aurka borrokatzeko prest da.

#### ■ Zeintzuk dira denboraldi berrirako helburuak?

Oro har, joan den azaroan taldean sartu zen zuzendaritza berriaren helburu nagusia da taldea merezi duen lekuan jartzea. Denek dakite oso arazo larriak bizi izan ditugula azken urteotan, eta guk taldea aurrera atera nahi dugu, etapa berri bat hasi. Hamahiru urte darama CBNk sufritzen, lagun gutxi batzuen apustua izan delako eta emakumezkoen taldea delako. Bestela, egoera guztiz ezberdina litzateke, baina oraindik, edozein kirolletan, emakumezkoen talde bat izateak oztopo gehiago gaituzte beharra ekartzen du. Guk erabaki genuen taldea indarberritzen saiatu behar ge-

nuela, eta hori da gure erronka nagusia hasi berri den denboraldiari begira.

#### ■ Kirol arloari dagokionez, zer asmo duzue?

Emakumezkoen saskibaloia ligan lehia handia dago, eta, Europako maila kontuan hartuta, kalitate handikoa da. Guk ez dugu sailkapeneko beheko aldean jarraitu nahi, baizik eta talde on bat osatu, ahalik eta goian egoteko. Ilusioa sortu nahi dugu, zaletasuna, gure herrialdean saskibaloian aritzen diren emakume guztientzat erreferentzia bilakatu, eta Arrosadiko pabillioia bete larunbatero; ema-

«Aurtengoa CBNren urtea izanen dela ziur naiz, behingoz aurrera egin edo betiko amore eman erabakitzeko unea iritsi baita; argi dago nire apustua zein den»

kumezko asko aritzen da Nafarroan saskibaloian, gizonetzkoak baino gehiago. Guk CBNren alde egin dugu apustu, eta, orain, besteek apustu egiteko ordua da.

#### ■ Dagoeneko babesle bat aurkitu duzue.

Bai, baina babesle nagusi baten bila gabiltza oraindik; aurten aurkituko dugula espero dut. Argi dago dirurik gabe ezin dugula deus egin. Nafarroako enpresei deialdia egin nahi diet emakumezkoen kirola lagundu dezaten, emakumezkoena baita etorkizuna. Guretzat oso zaila izan da babesle bat aurkitzea, eta ez luke horrela izan behar. Eki- men pribatuak kirolaren alde egin beharko luke.

#### ■ Eta zein izan beharko luke erakunde publikoen bete-kizuna?

Erakunde publikoen laguntzak gora egin du; Iruñeko Udalarekin hitzarmena sinatu dugu, eta Nafarroako Gobernuak ere ematen digu laguntza. Hala ere, oraindik beste kirol eta talde askoren

**MOSKI JATOR**  
ERTAROAN

Nabarreriako  
Gudari buruz



## Nafar Kronika

Mikel Beramendi

### Hirurak bat

**E**rresuma zaharreko hiri-buruan bizi garenontzat, larrazkenaren hasiera Comedias karrikako gaztaina-saltzaileak agintzen du. Hark lokomotora beltz-berdea paratu badu, uda amaitu den seinale, temperaturak gaztainaldian baino helatualdian gaudela adierazi arren.

Udaren amaieraz ohartu ez denak unibertitateen hasiera ekitaldiei errepara diezaiela, horiek ere udako martxa utzi eta ekainera arte luzatuko den neguko erritmo gogorrera egokitu beharra gogoratzen baitigute. Aste honetan, Unibertitate publiko zein pribatuak ikasturte berria hasi dute. Eta UNEDek ere beste horrenbeste eginen du datozen egunean. Hiru unibertitate 500.000 laguneko lurraldean. Eta hirurak bat euskarari dagokionez.

Opusekoek Joxe Miel Barandiaran ekarri zuteneko garaia ahantzia dute, Euskalerria zer den ifernura ere joateko prest zegoen jakintsu haren irakaspenak arriskutsuak baitziren. Nafar guztiok pagatzen dugun unibertitateak ere hesi luze eta handia eraiki du euskara sar ez dadin. Horrela, Gobernuak kontent, baita Opu-setik joandakoak ere, eta batez ere, aurrekoekin batera ikastetxea kontrolatzen duten uestezko progreak.

Unibertitateen ikasturte berriak larrazkena hasia dela erakusteaz gain, euskararentzat arlo horretan negu zitela besterik ez dela gogoratu digu.

## gure aukerak

### MUSIKA

► **Bera:** Benito Lertxundik musika emanaldia eskainiko du bihar Eztegarra pilotalekuan, gaueko 22:00etan, IKA euskaltegiaren matrikulazio kanpainaren barnean.

### ERAKUSKETAK

► **Bertiz:** Bertizko Jaurrerian *Euskal Herriko antzinako bizi-modua postal irudietan* erakusketa ikus daiteke urriaren 15a arte, 10:00etatik 14:00etara, eta 16:30etik 20:00etara.

### IKASTAROAK

► **Iruñea:** Iruñerriko IKAREN zentroetan izena emateko azken egunak dira. Euskara ikasteko ordutegi eta urrats guztiak dira, EGA barne. Izena euskaltegiaren eman behar da, eta informazioa ere bertan jaso ahal da: Arturo Campion (948 222246), Barañain (948 188325), Atarrabia (948 332660), Mendillorri (948 162 439) eta Ermitagaña (678 861773).

► **Etxarri-Aranatz:** Udalak ikasturte berrirako ikastaroak antolatu ditu: oinarritzko sukaldaritza, gorputz masajea, eskulanak, lentzeria, soinketa, dantza eta yoga. Izena irailaren 18tik urriaren 6a bitarte eman behar da, Kultur Etxean edo 948 460930 telefono zenbakira deituta.

► **Atarrabia:** Atarrabiako Udalak helduentzako *Aisialdi sortzailerako ikastaroak* prestatu ditu: argazkilaritza, unibertsitaterako sarrera, aretoko dantzak, informatika, pintu-

ra, Kubako dantzak, antzerkigintzaren hastapenak, artearen historia... Izena irailaren 18tik urriaren 11 bitartean eman behar da, Kultur Etxean, arratsaldean.

### ANTZERKIA

► **Atarrabia:** Vagalume antzerki taldeak *Pajarraca* ikuskizuna eskainiko du gaur Antso VI.a Jakitunaren Plazan, gaueko 21:00etan, besten aurreko kulturen arteko astearen baitan.

► **Barañain:** Titere eta Txotxongi-

lo VI. Jaialdiaren baitan, Demons et Merveilles konpainiak *Txanogorritxo* lana emanen du igande goizean, 12:00etan, eta *Estralurtarrak* arratsaldean, 17:00etan. Ziklo beraren baitan, Taupada konpainiak *Printze txikia* txotxongilo lana eskainiko du euskaraz heldu den astelehenean, urriaren 2an, 12:00etan eta 17:00etan.

### BERTSOLARITZA

► **Iruñea:** Iruñeko Bertso Eskolak antolatuta, bertsoaren

inguruan elkartu nahi duenak horretarako izena eman dezake urriaren 14an Descalzos kaleko 50.ean arratsaldeko 18:00etan eginen duten bileran.

### BESTELAKOAK

► **Iruñea:** Juango Olasagarrek poesia errezitaldia emanen du datorren ostegunean, urriaren 5ean, Nafar Ateneoak antolatuta. Erraldioen Txokoan izanen da, arratsaldeko 20:00etan.

• JOXE LACALLE



## Modaren diktadura

Gutzik, oso gutzik hartu zuten serio iragan ostiraleko autorik gabeko eguna. Baina baten batek bai, serio hartu eta moda erakustaldia prestatu ere egin zuen. Gaztelu enparantza inguraten duen errepede zabal-zabalean protagonista bakarra izanen zela aprobetxatuz, motorrik gabeko garraio bideetako punta-puntako moda erakusteko betebeharra hartu zuen emakumeak. Haurra atzetik, amaren abiadurari jarraitu ahal izateko adi-adi gupilari begira. Patinetea ez da inolaz ere garraio biderik azkar eta erosoena, baina moderno izan nahiak sakrifizioa eskatzen du ezinbestean.

Kutsatu, ez zuten egin, baina garaiz heldu ote zen haurra eskolara?